

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Nafarroako administrazioek 394 milioiko 819 kontratu publiko egin zituzten iaz

*Kontratu horiek 32 errekurtsio eragin zituzten, eta haietatik erdia baietsi ziren*

Martes, 22 de septiembre de 2015

Nafarroako Kontratazioen Atariak 394 milioi euroko 819 kontratu argitaratu zituen 2014 an. Kontratazio horietatik, 32 bakarrik aurkaratu ziren Nafarroako Kontratu Publikoen Administrazio Auzitegiaren aurrean; auzitegi horrek erreklamazioen erdia zati batean edo guztiz baietsi zituen (ekitaldi horretako kontratazio-espeditante guztien % 1,9).



Nafarroako Jauregiko fatxada.

Hala jasotzen da Nafarroako Kontratazio Publikoko Batzordearen memorietan (independentzia funtzionala duen kide anitzeko organoa), haren helburua entitateen kontratazio publikoko sistemaren funtzionamendu ona zaintzea da, eta dituen zereginen artean, Nafarroako Kontratazio Ataria kudeatzea dago; aipatutako Kontratuen Auzitegiaren memorietan ere jasotzen da, 2013an sortu zena Nafarroan finantzaketa publikoarekin jarduten duten Administrazio, sozietate publiko eta erakundeen kontratazioei egindako erreklamazioak bizkor ebazteko (hogei eguneko epea, gehienez ere). Auzitegi horrek independentzia funtzionala du, eta Kontratazio Publikoko Batzordeari atxikita dago organikoki.

### Kontratazio publikoaren xehetasuna

2014an atari horretan 819 kontratu argitaratu ziren, eta haietan, kontratazio foro-araudiaren arabera, 50.000 euroko edo handiagoko espeditante guztiak argitaratu behar dira. Toki-erakundeek egin zituzten kontratazio-kopurua handiena (300), eta haien atzetik datoz, Nafarroako Gobernuko departamentuak (293), sozietate publikoak (116), erakunde autonomoak (62), unibertsitateak (37) eta beste erakunde publiko batzuk (11). Kontratu horien tipologiari erreparatuz, erdia baino gehiago laguntzekoak izan ziren (438), eta jarraian, obrei (200), hornidurei (163), zerbitzuak emateari (17) eta herri-lanak emateari (1) lotutakoak.

Zenbatekoen arabera, sozietate publikoek dute kontratazio-bolumen handiena kontratatutako 169,5 milioi euroekin (% 43,02), eta haien atzetik datoz Nafarroako Gobernuko departamentuak 158,8 milioirekin (% 40,3), toki erakundeak 38,2 milioirekin (% 9,71) eta erakunde autonomoak 19,9

milioirekin (% 5,05). Laguntzeko kontratuetan ere izan ziren zenbateko handienak (165,4 milioi euro), eta jarraian, herri-lanak ematea (91,5), obrak (67,9), zerbitzuak ematea (51,2) eta hornidurak (17,9). Aipatu behar da, kontratuen batez besteko zenbatekoa 481.125,64 euro izan zela iaz.

Bolumen handiena kontratatu zuen departamentua Gizarte Gai, Familia, Gazteria eta Kiroletakoa izan zen 2014. urtean, 115,3 milioi euroekin; haren atzetik, Lehendakaritza, Justizia eta Barnea, 19 milioirekin eta Sustapena, 14rekin.

Bestalde, erakunde autonomoen artean, Nafarroako Osasun Zerbitzua-Osasunbidean kontratatu zuen gehien, 18,87 milioi euroekin.

### **Aurkeztutako 32 errekurtsio: kontratu-kopuruaren % 3,9**

Nafarroako Kontratu Publikoen Administrazio Auzitegiaren aurrean 32 errekurtsio aurkeztu ziren iaz, hau da, kudeatutako espediente guztien % 3,9. Auzitegiak baietsitako errekurtsioak (guztiz edo zati batean) 16 izan ziren.

Ahalmen esleipendunak kontuan hartzen badira, Foru Komunitateko Administrazioak jaso zituen errekurtsio gehien (15, guztira), eta atzetik datoz toki erakundeak, beren kontratuei 13 errekurtsio aurkeztuta.

4 alditan bakarrik Nafarroako Kontratu Publikoen Administrazio Auzitegiaren erabakiak aurkaratu dira administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren aurrean, eta gaur arte ez zaio epairik egokitu.

Auzitegi honen aurrean aurkeztutako errekurtsioak doan dira erreklamatzailleentzat eta, beste autonomia erkidego batzuetan gertatzen ez den bezala, edozein kontratu publikoen aurka jar daiteke, haren zenbatekoa alde batera utzita, bai eta kontratuko enkargu edo aldaketen aurka ere, eta izapide elektronikoaren bidez egiten da guztiz. Gainera, kontratua gauzatzea eta haren egikaritzearen hasiera automatikoki eragozten duen aurkaratzeko bide bakarra da, aurkaratzen dena haren esleipen-egintza denean, erreklamazioen % 68an gertatu zena.